

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Funtzesko jarduerak beharrezkoak dira balorezko proposamena egiteko, bezero potentzialengana iristeko, bezeroekiko harreman eraginkorrak eraikitzeke eta diru sarrerak lortzeko.

Arazoak konpontzeko enpresa bat denez, produktuak ekoitzi ordez, zerbitzuak eskaintzen ditugu eta sareko jardueran parte hartzen dugu, hau da, webgune baten bidez gure bezeroekin kontaktuan egongo gara, behar duten zerbitzu mota aukeratu dezaten.

Honen bidez, enpresak zerbitzu desberdinak eskainiko ditu 3 adin taldeentzat: haurrak, helduak lagundu eta adinduen espezializazioa.

Lehenengo taldea haurretaz arduratzen da. Adibidez, gurasoek ezin badu bere umetaz arduratu, hura zaindu, eskolara eraman edota etxeko lanak egiten lagunduko dion espezializatutako langile bat bidaliko diogu. Baita ere, urtebetetze eta animazio festak antolatzea eskainiko dugu. Gainera, elbarritasun fisikoa duten umeak laguntzeko ere prest egongo diren langileak eskaintzen ditugu.

Bigarren taldea helduak laguntzeaz arduratzen da eta hainbat laguntza mota eskaintzen ditugu hala nola, erosketak edota etxeko lanak (sukaldaritza, garbiketa, plantxa...) egiten laguntzeko espezializatutako langileak bidaliko ditugu.

Hirugarren taldea adinduetan espezializatutako sektorea da. Hauek, bigarren taldeko zerbitzu minimoa izango dute, hau da, etxeko lanak, garbitasun pertsonaleko laguntzak eta erosketak egiten lagundu. Horretaz gain, paseatzera eraman, eguneko bisitak egin edota aisialdirako zerbitzuak emango dira.

Horretaz gain, webguneak zati bat izango du non adinduek eskuragarri izango dituzte online jolasak. Jolas horiek memoria lantzeko izango dira modu dibertigarrian. Koloreak lantzeko, zenbakiak, irakurketak... Horrela webgunek bisita gehiago izango ditu eta Interneten eta ordenagailuen erabilera sustatuko dute pertsona hauek.

Bukatzeke, hilabeteetan bitan, elkarretaratzeak egingo ditugu. Asteburuan egingo ditugu, denok batera eguna pasatzeko eta beste pertsona batzuekin erlazionatzeko. Bertara bezeroak naiz monitoreak joango diru ondo pasatzeko helburuarekin. Irteera hauek aparteko kostu bat izango dute eta horren arabera zer irteera egingo den erabakiko da.

Gure ofizina Donostian egongo da eta lau-bat langile egongo dira lanean, bereziki webgunea kontrolatzen eta promozioak txertatzen. Gainera telefono deiak egunero onartuak izango dira, 24 orduko zerbitzua eskaintzen dugulako.